



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Saiburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2019ko irailaren 6koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2018-2019ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpena ematen du.

Hezkuntzako sailburuak, 2018ko uztailaren 3ko aginduaren bitartez (2018ko uztailaren 10eko EHAA), 2018-2019ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen.

Hautaketa-batzordeak, 2019ko uztailaren 10ean, aurkeztutako bikaintasun akademikoko beken eskaeren ebazpen-proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena-zenbakia dutenei beka ematea (I. Eranskina), guztira 120.000 €koa.

Bigarrena.- Baldintzak betetzen ez dituzten edo beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea (II. Eranskina).

Hirugarrena.- Interesatuak, gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 6a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA  
KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**

**Miren Artaraz Miñón**